

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

18/2022 Foru Araua, irailaren 12koa, 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa, baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudira egokitzeko Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko irailaren 12an egindako Arautegi eta Barne-Gobernu Batzordean (Batzorde Iraunkorra) ondoko foru araua onetsi dute:

18/2022 Foru Araua, irailaren 12koa, 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa, baliozkotzeko dena, Arabako zerga araudira egokitzeko Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abuztuaren 2ko 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Arabako zerga araudira egokitzeko Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da abuztuaren 2ko 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Arabako zerga araudira egokitzeko Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA